

---

## Urriak 6, astelehena. Hasiera ekitaldia

---

### Euskaltzaindiak hasiera eman dio bere XVI. Nazioarteko Biltzarrari

*Pirinioetako hizkuntzak: lehena eta oraina.* Datozen egunotan, horri buruz hitz egingo da gaur Iruñean zabaldu den Euskaltzaindiaren XVI. Nazioarteko Biltzarrean. Pirinioetako mendikate zabalaren bi aldeetako hizkuntzak (euskarra, katalana, aragoiera eta okzitania) eta kulturak ikertuko dira bertan. Bestalde, Euskaltzaindiaren laurogeita hamargarren urteurreneko ekitaldien hasierakoa izanen da hau. “Zaharrak berri dio esaerak —esan du gaurko hasiera ekitaldian Andres Urrutia euskaltzainburuak—. Aspaldikoa gaurko eta biharko gehituko nuke nik hemen Iruñean eta zuen aurrean, Euskaltzaindiaren laurogeita hamargarren urteurreneko ospakizunak hasiera goazenean”. Gaur hasi eta ostiral arte Iruñeko Baluarte Jauregian egingo den biltzarrean 150 biltzarkide inguruk hartuko dute parte, proposatutako gaien inguruan gogoeta egiteko. Jarraian, Biltzarrak lau lerro nagusi izango dituela esan du: *historia eta dialektologia, literaturak, hizkuntzak eta gizarteak eta toponimia.*

### Euskaltzaindiaren heldutasuna

Heldutasuna da Euskaltzaindiaren ezaugarrietako bat, euskaltzainburuaren esanetan. Heldutasun horretatik abiatuta, Akademiak esperantzaz ikusten du etorkizuna; batetik, bide luzea egin duela —“aspaldikoa da Euskaltzaindia, zalantzarik gabe. Laurogeita hamar urte betetzeko puntuan dago”— eta, bestetik, gaurko erakundea delako.

“Heldutasunaren itxura esan —gaineratu du Urrutiak— eta hori berretsi nahi dut Euskararen Akademia XXI. mendean sartu delako, ehungarren urteko esperantzan. Xede nagusia euskararena du, hasiera-hasieratik izan duen bezalaxe; baliabideak, berriz, aldiari aldikoak ditu, teknikek nahiz kideek eskaintzen dutenaren arabera”.

Hala, bada, azken lau urteotan, jende gaztea sartu da Euskaltzaindian “eta laster igarriko da, lehen so horretatik abiatuta, belaunaldi berria etxeratu zaio-la gure erakundeari”. Bestalde, Euskaltzaindiaren eremua euskararen eremu bera da, hala izan da eta hala izango da: “Araban zein Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan, Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan. Guztietan dira egun euskararen biziraupenaz kezkatzen diren aginte eta agintari bereziak; guztio-kin ditu harreman sendoak Euskaltzaindiak. Guztiek aitortzen dizkiote Euskaltzaindiari itzala eta dedua; guztiok bilatzen dute haren aholkua euskarari dagozkionetan”.

Lanean dihardu Euskararen Akademiak: “Lanak eta zerbitzuak aberasten dute Euskaltzaindia: lan akademikoak, batzorde eta egitasmoetan; zerbitzu zabalak, euskara aitzinatzeko ahaleginetan gidari eta partaide izaten. Horretan du etorkizuna Euskaltzaindiak: lanean eta zerbitzuan; hitzarmenetan eta konpromisoan, euskalgintzan diharduten beste erakunde, elkarte eta kulturaguneeekin batera, unibertsitateei dagokiena ere aintzat hartuta”.

“Horretan —amaitu du Andres Urrutiak— lortuko du Euskaltzaindiak euskara bera instituzionalizatzea; gizartearen aurrean erakunde moduan agertzea. Bateko, goi-mailako ikerketa; besteko, gizarteari zerbitzua; arteko, osatze zabala, pertsona eta ikuspegi desberdinetako eragile euskaltzaleak barruratu, Euskal Herri osoko euskaldunak ordezkatu”.

Biltzarraren hasiera ekitaldian, Andres Urrutia euskaltzainburuaz gain, Carlos Perez-Nievas Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza kontseilariak hitz egin du eta hauxe azpimarratu: “euskara, bateratzen gaituen eta urruntzen ez gaituen errealitatea da”. Bestalde, bere poza agertu du, gaur egun, orain laurogeita hamar urte bezala, Gobernuak eta Euskaltzaindiak elkarrekin lan egiten dutelako, euskararen mesedetan.

### **Metzeltin: “Eleaniztasuna da normalena”**

Michael Metzeltin Vienako Unibersitateko irakasle eta erromanista ospetsuak Las lenguas de los Pirineos hitzaldia eskaini du. Hizkuntzalari honen

aburuz, mendikateak ez dira zertan izan behar jendeak, eta hizkuntzak, eta kulturak aldentzeko aitzakiak. “Ustez —esan du— mendikateek urruntzeko balio dute, baina hurbiltzeko ere badira. Kulturak eta gizarteek jendea batzen dute, politikak dira urruntzen dutenak”.

Metzeltinek dioenez, hizkuntzalaritza eta matematikak dira oinarrizko bi zientziak, funtsezkoenak. Mundua ezagutzeko eta ulertzeko balio dute. Normalena —gaineratu du eleaniztasuna da, eta ez elebakartasuna. “Nik —adierazi du— xaloa izan nahi dut, hala ere. Eta xaloa izateak esan nahi du eleaniztasuna onartzen dudala, sustatu eta aitortu ere bai. Baina Europan bizi gara, eta Europar Batasunean maila desberdinak dira: Brusela, estatuak, erregioak... Hauxe da nire mezua: erregioetako hizkuntzak mantendu behar ditugu, baina ez dugu pentsatu behar nazioarteko hizkuntzak izan behar direnik. Bestela, arriskutsua izan daiteke”.

---

## Urriak 7, asteartea. Historia eta dialektologia

---

### **Euskaltzaindiaren biltzarraren bigarren eguna: historia eta dialektologia**

Historia eta Dialektologia izan dira protagonista Euskaltzaindiaren XVI. Nazioarteko Biltzarraren bigarren saioan, urriaren 7an. Hauek izan dira hizlariak:

- Joseba Lakarra: Aitzin euskara

Aitzinhizkuntzak zer diren eta zertarako baliatzen diren hizkuntzalaritza historikoan laburki aipatu ondoren, aitzineuskararen azterketaren ikuspegi berriak landu ditu Joseba Lakarrak, haiek azaltzeko 1995an proposatu zuen erro monosilabikoa nabarmenduz. Halaber, beste hainbat ikerketa-bide eta emaitza aipatu ditu.

- Joakin Gorrotxategi: Euskara Zaharra

Hitzaldi honen xedea, antzinateetik datozkigun lekukoak kontutan harturik, garai hartako euskararen egoera aztertzea da. “Euskara zaharra” beraz ez da hemen zentzu zabal batean ulertuko, gaur eguneko ez den edozein euskara zaharrago baten zentzuan, alegia, baizik eta antzinateari dagokion esparru heretsian. Bestalde, euskara Pirinioetako hizkuntza bezala aurkeztu da.

- Joan Antonio Rabella: El nacimiento del catalán escrito en el Pirineo

ix. eta xi. mende artekoak dira katalunieraz aurkitutako lehendabiziko testigantza idatziak. Zaharrenetan, toponimoak eta, haien ondotik, erroman-tereko aipamen laburrak eta baita testu luzeagoak ere. Hitzaldian zehar, idatzion ezaugarriak aztertu ditu, baita bere kokapen geografikoa eta erromantzea aukeratu izanaren arrazoa azaltzen saiatu da.

- Fernando González Ollé: El navarro y el aragonés

Bere hitzaldian, nafarreraren eta aragoieraren arteko harremanaz mintzatu da. Barne linguistikari baino, kanpo linguistikari begiratu dio, lehenengoa askoz hobeto finkatuta dagoelakoan. Bien arteko aldeak azpimarratu ditu, ezezagunagoak diren azterketei eta lan berriei jarraiki.

- Ricardo Ciérvide: Occitano, languedociano y gascón

Erdi Aroan, Nafarroan euskara eta erromantzea ez ezik (bertako aldaera barne), gaskoiera eta okzitaniera ere entzun zitezkeen. Eta neurri txikiagoan, arabiar dialektoa eta hebreera.

Garai hartan kokatu nahi izan du egileak bere lana, hizkuntza horien garapena eta presentzia, ahozkoa zein idatzia, erakusteko, eta gaskoiera eta okzitaniera nola barneratu ziren azaltzeko.

- Xavier Lamuela: El valle de Arán: el occitano al sur de la frontera pirenaica

Araneko hizkera gaskoierazko mendebaldeko dialektoa da eta oso zantzu periferikoak ditu, batez ere okzitanieraren bestelako lurraldeekiko izan duen bereizketa politikoak eraginda. Aranera eta gaskoieraren arteko lotura begi bistakoa da, eta beste kasu askotan gertatzen den bezala, berrikuntza lexiko eta sintaktikoek baldintzatzen dute. Gaur egun, Kataluniako Gobernuak irmoki bultzatzen du Araneko Ibarreko okzitaniera. Hala ere, ezin da jakin zer gertatuko den etorkizunean.

- Iñaki Camino: Pirinioak, ekialdea eta euskal mintzoak

Hitzaldiak Nafarroa Garaiko eta Nafarroa Behereko ekialdeko alderdie-tako eta Zuberoako euskara du gaia. Eremu horietako mintzoek alderdi geolinguistikotik ageri dituzten ezaugarri interesgarriak eta eragiten dituzten arazo enpirikoak aipatu dira. Bestalde, ikertzailearen ustez gaiari argitasuna eman diezaioketen ikuspegi teorikometodologikoak ere aurkeztu dira.

- Ramon Sistac: De isoglosas y fronteras. El catalán pirenaico

Pirinioetako mendebalde eta ekialdearen arteko harremanak oso ezagunak badira ere, horiek bezain garrantzitsuak izan dira —hizlariaren ustez— iparraldearen eta hegoaldearen artekoak. Batez ere demografiak, ekonomiak eta ingurumenak eragin dituzten harremanak. Ribagorza eskualdea jarri da adibide bezala nola diren osagarriak meditarreo aldea eta atlantiko aldea.

- Jordi Suïls: Gaskoi — Okzitaniara dialektologia

Jordi Suïls okzitaniar soziolinguistikako eta dialektologia erromanikoko irakaslea da, bere ikerketa-eremuen artean daudelarik okzitaniar nortasunarekin lotutako literatur adierazpenak eta Erdi-Pirineoko hizkuntza-eremua.

- Fernando Sánchez: Aproximación a la situación dialectal del aragonés

Aragoieraren gaur egungo eremua finkatu eta dialektoen orain arteko banaketa aipatzeaz batera, antolaketa berriaren alde egin du Sanchezek, lekuan lekuko aldaera ezberdinak bi talde nagusitan banatuz: mendebaldekoa eta ekialdekoa. Hala ere, aldaeren berezitasun fonologiko, morfosintaktiko eta lexikoak aztertzeaz gain, sailkapena osatzeko zailtasunak ere azpimarratu ditu.

---

## Urriak 8, asteazkena. Literaturak

---

Gaur, urriak 8, literaturari eskaini dio Euskaltzaindiak bere XVI. Nazioarteko Biltzarren hirugarren eguna.

- Patxi Oroz Arizkuren: Miscelánea filológica circumpirenaica

Patxi Orozek miszelanea filologikoa osotu du bere mintzaldian, gai bat baino gehiago landuz, printzipioz, elkarrekin harremanik ez dutenak: Guilhem de Peiteu-ren bertso amaitu gabeko baten inguruko bere susmoak; *boina* hitzaren etimologia; edota Arestiren *Nire Aitaren Etxea* lanarekiko bere lotura hizpide izan ditu mintzaldian.

- Philippe Gardy & Jean François Courouau: Références et croyances pyrénéennes dans l'oeuvre poétique occitane de D. Saurat

Denis Saurat-en (1890-1958) lanaz hitz egin da. Haren poesiako bi bilduma argitaratu dira: *Encaminament catar* (Toulouse, 1955) eta *Encaminament*

catar II. Lo çaire (Toulouse, 1960, hil ondoren). Bi bilduma hauek poesia filosofikoak dira eta poesia era hau gutxi agertzen da okzitanierazko literaturan. Bertan, Pirinioetatik jasotako sinesmenek, mitologiak eta sinbolismoak protagonismo handia daukate.

- Chusé Inazio Navarro: *Letras de cobre* (un paseo por la historia de la literatura en aragonés)

Chuse Navarrok aragoierazko literaturaren historiaren erreposoa egin du gaurko bere mintzaldian. x. mendetik hona, aragoieraz sortu den literatura hizpide izan du eta, batez ere, hirurogeita hamarreko hamarkadan aragoieraz egindako literaturaren berpizteaz mintzatu da. Izan ere, ordutik hona aragoieraz idatzitako 300 liburu inguru argitaratu dira.

- Aurelia Arkotxa: Ibilaldi poetiko bat Pirinioetan

Pirinoetako mendiek nolako protagonismo handia hartzen duten ikusi da zenbait iparraldeko euskarazko narrazio eta poesiatan ikusi da. Testu hautaketa zazpi autoreen lanetan finkatzen da: Atheka gaitzako oihartzunak -ean, Jean-Baptiste Dasconaguerre-ren frantsesezko lanaren euskal bertsioa dena, Duvoisin-en Baigorriko *Zazpi liliak* -en, Oxobiren *Mendiz-mendi* poesia sailean, Jean Etxepare-ren *Beribilez* -en, Xalbadorren *Odolaren mintzoa*-tik atera zenbait bertsuetan, Iratzederren *Biziaren olerkia* -n eta Etxamendiren *Aurora* -n.

- August Rafanell: *Catalán y occitano sobre el mapa*

Hizkuntza katalanaren historian ondo ezagutzen ez den gertaera bat bada. Hamarkada batzuetan zehar, ondoko ideia guztiz zabaldu zen: katalanak eta okzitanierak bat egin behar zuten, bai hizkuntza eremuan, bai eta, oro har, eremu kulturean ere. Ideia horrek Gerra Zibila hasi artean bizirik iraun zuen. Halere, badago garrantzi handiko faktore bat: zientzia linguistikoak ezarri dituen muga guztien gainetik, kontzientziak eragindako bestelako indarrak ere funtsezkoak dira eta horiek eragiten dituzte kulturen arteko harremanak.

- Txomin Peillen: Euskal literaturaren modernismoaren atetik sartzea

Euskal literaturak hamarkada batean bizi izandako iraultzaz mintzatu da Txomin Peillen. Bere esperientzia pertsonalari helduta, erlijioarekiko haustura, tematika eta idazmolde berrien sarrera nabarmendu ditu, nahiz eta Iparraldean kostunbrismoak eta populismoak oraindik indarririk bazuten. Azpimarraztekoa ere, gaur ez bezala, orduko idazle berriek bere aurrekoen lanak irakurri

eta ezagutzen zituztela, eta haien arteko hurbiltasuna eta Gerra Zibil aurreko euskara altxortzat zutela.

- Aingeru Epaltza: Hartzaren bortz hatzak

Camille, Nafarroa, Biarno eta Aragoi artean ibilitako hartza hizpide hartuta, muga arteko ibilaldian murgildu eta hausnarketari heldu dio, inguruotan gertatu diren eraldaketen gainean: natura, herriak, lanbideak... Hausnarketa hori literaturara eramanda, lau hizkuntzatan ari diren idazleentzako gaur egungo paisaia aldarrikatzen du. Testuinguru horretan, esperantzari dei eginen dio euskal idazleak, gure hizkuntzen eta kulturen iraupenaz den bezainbatean.

- Quino Villa: Viaje al Paraíso sin Nombre

Esperientzia emozionalaren paradisura hurbildu nahian, amahizkuntza ikasi genueneko oinarri neurologikoetan murgildu da hizlaria, bere ustez, hizkeraren eboluzioa, batez ere, esperientzia emozionala baita. Ama-hizkuntzan sortzen den lirikari erreparatzen zaio: sorkuntza + sentimenduaren eragitea + jatorrizko informazio emozionalaren bilaketa. Literatura sorkuntzak —lirikak bereziki— joan-etorriko esperientziei bidea zabaltzen die eta haxe da, izan, esperientzia emozionalaren goreneko unea. Bigarren partean, Aragoiko lirikari buruz hitz egin du Quino Villak.

- Patxi Baztarrika-Xabier Azanza: Euskararen inkesta soziolinguistikoa

Patxi Baztarrikak eta Xabier Azanzak IV. Inkesta Soziolinguistikoaren emaitzak aurkeztu dituzte. Ondorioen artean, haxe azpimarratu dute: euskaldunen kopurua aurrera doala Euskal Herrian. Bertoko biztanleen %25,7 elebiduna da, %15,4 elebidun hartzailea eta %58,9 erdaldun elebakarra. EAEko elebidunen hazkundera 50 urtetik beherako adin-talde guztietan gertatu da eta Nafarroan 35 urtetik beherakoen artean.

- Bernardo Atxagaren emanaldi artistikoa

Jose Irazu “Bernardo Atxagak” ipuin bat kontatu du, pertsona ezberdinentzat paradisia zer den esanez: Arantzazuko jatetxe batean bazkaltzen ari direnentzat eta Arantzazuko elizatik irteten ari direnentzat; Arrazolako base-ritar batentzat; paradisutik bota dituzten Adam eta Evarentzar; eta Oregongo artzain euskaldun batentzat. Eta, azkenik, “Carrusel Deportivo” izeneko irratisaioaren parodia egin du, pizsina baten inguruko zelaian dabilzan lau katu-  
ren gorabeherak kontatuz.

---

## Urriak 9, osteguna. Hizkuntzak eta gizarteak

---

Gaur, urriak 9, Hizkuntzak eta Gizarteak gaia jorratu dute biltzarkideek, Euskaltzaindiaren XVI. Nazioarteko Biltzarrean.

- Mikel Zalbide: Hizkuntza-aldaeren lekua eta eragina EAEko eskola-munduan

Hizkuntza-aldaerek Euskal Herriko eskola-munduan izan duten eta gaur duten lekuaz hitz egin da hitzaldian. Lehenari dagokionez, 1900. arte ia testu guztiak euskalki edo azpieuskalki bidezkoak ziren. xx. mendearen lehen bi herenetan hainbat saiakuntza dialektal eta supradialektal egin zen, ikasmaterialetan bereziki, eskola-hizkuntza berariazko bat sortze aldera.

Arantzazuko Biltzarrean, orain dela 40 urte, hizkuntza eredu bateratua eta irakaskuntza oso elkarren eskutik ezarri ziren. Handik hamar urtera, 1978ko Biltzarrean, hizkuntzaren formulazio polinuklearragoa hasi zen burua jasotzen. Formulazio horrek EAEko erakunde sorberrietan bere eragina izan zuen: Hezkuntza Sailaren 1982ko Adierazpenean, bereziki. Euskara batua eta euskalkiak, biak eta ez bat bakarra, eskolaratzeko saioa izan zen hura. Saio horren eraginez eratu zen handik gutxira, bizkaieraren alorrean aditu ziren euskalarien ekarpenez, bizkaierazko substandard idatzia. Bizkaierazko ikasliburugintza ere aurrez aurre babesten eta bultzatzen hasi zen Saila, eta Bizkaiko irakasleen hizkuntza-prestakuntzaren agendan bizkaiera sartzen.

Egungo egoeraren zenbait ezaugarri aipatu dira azkenik. Besteak beste azken mendelaurdeneko transformazio demografikoa (haur-jaiotzen jaitsiera larria eta, horren ondorioz, irakasle berriak kontratatzeke urte luzez izan den eragozpena), transformazio ekonoteknikoa eta soziokulturala. Horren guztia- ren ondorioz lekuan lekuko aldaeren bizi indarra ahuldu egin da oro har, eta espazio fisiko zein soziofuntzionalak lehen baino sendoago gaztelaniarekin konpartitu beharra. Horrek guztiak ondorio argia ekarri du: hizkuntza-aldaeren kopurua, murriztu ordez ugartu egin da. Euskaldun guztion erreper- torio berbalean sarturik dago gaztelania (askorenean era eksklusiboan), eta eus- kara batu arauzkoari beste hizkera molde zabal mordoiloagoa eransten ari zaio. Horiek guztiak izan behar ditugu kontuan, etorkizuneko konpartimen- tazio-eskema posible bat definitzeko orduan.



- Marie-Jeanne Verny: Ensenhar l'occitan al sègle XXI, una escomesa e mai d'enjòcs/ Enseigner l'occitan au XXIème siècle

Hizlariak okzitania irakasteko Frantzian dauden zailtasunak aipatu ditu, bai eta zailtasun horiek nondik datozen azaldu ere. Frantzian nagusi den ideologia elebakarrak, batetik, eta irakaskuntza publikoaren egoera larriak, bestetik —eredu publiko bezala, askotan erasotua baita, bere esanetan— okzitanieraren irakaskuntza erabat baldintzatzen dute. Azken hiru urteotan, gainera, dirulaguntza erabat murriztua izan da.

Hori guztia erronka bihurtu dute eta aurrera egin nahian, okzitanieraren irakaskuntza profesionaltasunean eta gogoeta egiteko ahalmenean, indartu egin da.

- Jean Salles-Loustau: L'enseignement des langues des Pyrénées en France: quelles perspectives pour le basque, le catalan et l'occitan?

Frantziako hezkuntza ereduak euskara, katalana eta okzitanierak oso leku ezberdina dute, nahiz eta “herrialde hizkuntza” izaera batera eduki. Hizkuntza horien trataera oso ezberdina da haien statusa zehaztugabea delako. Hala ere hizkuntza horien irakaskuntzari ate berriak irekitzen zaizkio Frantziako Konstituzioan eskualde hizkuntzek berriki izan duten aipamenagatik eta Europako erakundeek eleaniztasuna sustatzeko egiten duten ahaleginagatik.

- Juan José Segura: Principios y criterios para una codificación del Aragonés

Komunikazio honetan, aragoieraren Akademiak hizkuntza kodifikatu eta arautzeko landu duen arlo teorikoa eta metodologia azaldu ditu Segurak. Bere xede nagusia izan da prozesu osoaren izpiritua, asmoak eta helburuak transmititzea. Hori guztia, hainbat ikerlariren lan teorikoak aintzat hartuta bideratuta dago, Lamuelarena bereziki.

- Juan Carlos Moreno Cabrera: Euskara eta hizkuntza nazionalismo espainiarra

Espainiar nazionalismoaren hizkuntzekiko jarrera zazpi puntutan laburbildu du Juan Carlos Morenok. Bere helburua hau da: besteekiko nagusitasunaren ideia bertan behera uztea, euskara ere bere mailan dagoela frogatuz. Ondorioztatu duenez, berezko kalitateek baino, baldintza historiko, politiko eta sozialek ekarri dute gaztelaren nagusitasuna. Bere esanetan, nazionalismo horrek ezaugarri berezkoa du kontzeptu linguistikoa eta soziolinguistikoa zenbait manipulaziotan, hizkuntzen arteko desoreka prozesu natural baten ondorio dela agertzeko.

- Adolfo Arejita: Ahozkotasun corpusen ekarria literatura-eredura (zenbait adibide)

Adolfo Arejita, berak azaldu bezala, “ahozko edukien corpusek euskara idatzari eta berariaz literatura barrutikoari ekar diezaizkioketen onez, edo abantailaz” mintzatu da. Lazarraga eta Etxepareren garaitik hona, bien arteko loturaren errepasoa egin du. Halaber, ahozko corpusak biltzeko izan diren ahaleginei ere bere tarte eskaini die, eta haiek literaturarentzako izandako balioa aztertu. Literatura idatziak ahozko hizkera beti ondoan izan duelarik, gaur egun ahozko testuak biltzen jarraitzea premia bizikoa ikusten du, modu sistematiko eta kualifikatuan, hainbat ekarpen izango dituelarik “ez gutxien lexikografiatik, gramatika eta morfosintaxiaren aldetik, estilo-baliabide diferenteen aldetik, edo urrunago jota, etnografia, historia edo beste ikas adar batzuetatik”.

- Miguel Angel Pradilla: Luces y sombras en los procesos de normalización lingüísticos de la lengua catalana

Soziolinguistika aldakorra eta fonetika esperimentalak ikergai nagusi dituen Pradillak, katalanaren normalizazio prozesuaz hitz egin du eta esperantzarako zein argi gorria piztuta edukitzeko hainbat faktore azalatu ditu bere berbardian. Itxaropentsu izateko arrazoen artean, demografia, hizkuntza ofiziala izatea edota kultura baten ikurra izatea daude. Kezkarako arrazoiak, aldiz, hizkuntzacomunitate katalan eza, belaunaldien arteko transmisioaren etena, eta testuinguru kultural berria aipatu dira, besteak beste.

- Joseba Intxausti, Mikel Zalbide, Nikolas Gardner: Euskararen Historia Soziala

2007ko apirilean Aurreproiektua Euskaltzaindiak onartu zuenetik, *Etxeberri Egitasmoa* ari da bere bidea egiten eta udazken honetan urrats berriak emango ditu. Gaurko hau izan da Egitasmoko lanak eta asmoak jendarean aurkezteko egin den lehenengo ekitaldia.

Egitasmoaren eduki eta xedeak definitu dituzte hizlariak. Euskara, beste edozein hizkuntza bezala, gizarteko testuinguru batean bizi izan da, eta inguruabar sozialek babestu edo sustatu dute, eta baita kaltetu ere, bere bizi-iraupenean: hala nola, belaunarteko transmisioan, legeek eman dioten trataeran, hiztunen ohitura linguistikoetan, inguruko eta barruko erdaldunen ukipean, herritarren hizkuntzarekiko estimuan edo jakitunek berorri buruz egingandako gogoetan, erakunde sozial eta politikoen hizkuntzarekiko jarri duten arretan, edo ez-ikusi egin dutenean, etab.

Euskararen Historia Soziala aztertu nahi duen Egitasmo honek ikerkuntzarako eta informaziorako guztiz premiazkoak ditugun lanabes modernoak sortu nahi ditu, euskal mintzatzaileen iraganeko hizkuntza-historia argitara ekarriz, eta ondoan eta alboan izandako hizkuntzak ere gogoan hartuz. Egitasmoaren asmoen artean dago horretarako beharrezko datu-baseak sortzea, testualak eta bibliografikoak; era berean, langaien azterketarako analisi metodo egokiak findu nahi ditu, betiere ikuspuntu historiko soziolinguistiko batetik, eta baliabide teknologiko eguneratuenak erabiliz. Euskaltzaindiak duen beste zenbait proiekturen artean, *Etxeberri Egitasmoa* (EHS) ere estrategikoa da Akademiarentzat.

- Elena Chiocchetti: Harmonising legal terminology in four languages: the experience of the Alpine Convention

Elena Chiocchetti itzultzaile-interpretaria da eta 2003tik Bolzanoko Europar Akademiaren komunikazio bereziturako eta eleaniztasunerako Institutuan egiten du lan, lege terminologia aztertuz, besteak beste. Bere hitzaldian, itzulpen zuzenak egiteko dauden zailtasunak aipatu ditu. Terminoek, dagokien hizkuntzaren senarekin bat etorri behar dutela esan du, eta inposatu baino, hizkuntza guztiak errespetatu behar direla ere azpimarratu du. Lege-testuak itzultzeko, legelari adituak zein hizkuntzalari trebeak beharrezkoak direla agerian utzi du.

- Mahai ingurua: Teknologia berriak

Iluntzean, teknologia berriei buruzko mahai ingurua egin da. Hauek izan dira hizlariak:

- Andoni Sagarna. Euskaltzain osoa. Euskaltzaindiaren Informazio eta Komunikazioaren Teknologia batzordeko arduraduna.
- Joaquim Rafel. Institut d'Estudis Catalans-eko kidea. Diccionario del catalán contemporáneo egitasmoaren zuzendaria.
- Francho Rodés. Consello d'a Fabla Aragonesa eta Academia del'Aragonés erakundeetako kidea.

- Grupo Val d'Echo

Talde honek aragoierazko abesti hauek kantatu ditu: *Las flamas de lo fogaril*; *La sanmigalada*; *Dichos y chens*; *Otra puerta*; *L' arrigazo*; *Lo boyero*; *Flor de nieu*; *Pan de quilo*; *S'ha feito de nuey*.

- La Orquestina del Fabirol

Hirukoteak hauek kantatu ditu: *La tuya Parola; Bolero de Samianigo; Al-bada d'Alquézra; O Peirot; O chuizio d'Ayerbe; En a guerra y en l'amor; L'Abanera; Señor de San Chuan; Tango'l Dallo; Testamento de a Tierra Dolenta; Fiesta d'Agüerro; Ye Carnabal.*

---

## Urriak 10, ostirala. Toponimia

---

Gaur, urriak 10, XVI. Nazioarteko Biltzarraren azken egunean, Toponimia izan da gai nagusia.

- Patxi Salaberri: Pirinioetako euskal leku izenak: direnak eta diratekeenak

“Erranen nuke seguruak ez diren toponimo asko eman direla euskaratikakotzat eta guk lan honetan ezarri iragazkiak erabili behar genituzkeela gutxieneko bermearekin lan egin ahal izateko. Hala eta guztiz ere, aipatu iragazki horiek guztiak igarotzeak ez du baitezpada erran nahi toponimoa ezbairik gabe gure hizkuntzatik aterata dela. Bestalde, franko ziurrak direnak Euskal Herriaren ingurukoak dira gehienak”. Patxi Salaberrik Pirinioetako toponimiari bere hitzaldiaren parte nagusia eskaini dio, eta inguru horretako toponimoen ezaugarriak aipatu ditu.

Horren atari moduan, lan toponimiko zuzena egiteak eskatzen duen beharraz ere mintzatu da, eta baita helburu hori erdiesteko bete beharreko baldintzez ere. Oinarrizkotzat du, esaterako, euskara jakitea edo, gutxienez, ezagutzea. Lekuan lekuko toponimia ondo ezagutu behar da, eta horri behar bezala heltzeko, baita euskal toponimia ere. Toponimiaren azterketari, bere osotasunean heldu behar zaio. Euskal antroponimiaren berri ere izan behar da. Dokumentatzea ezinbestekoa da. Eta, noski, presarik eta aurreiritzirik gabe lan egin behar da.

- Chabier Lozano: La antroponimia aragonesa: su reflejo en la toponimia

Komunikazio honen bitartez, aragoieraren dialektoen gaur egungo ikuspegi sinkronikoa eskaintzen da, xx. Mende hasieran Saroihandy-k bildutako datuekin hasi eta azken aldiko ikerketarik berrienetaraino. Ezaugarri fonetiko, morfologiko eta sintaktikoei jarraituz, aldaera lokalen arteko trantsizioa

markatzeko isoglosak ezarri dira. Azkenik, dialektoen zatiketaren gaian murgildu da hizlaria, gaur egungo eztabaida delarik hiru edo lau ote diren.

- Albert Turull: Una caracterización de la toponimia pirenaica catalana

Kataluniako Pirinioetako hizkuntza-ikerketak interes handia pizten du adituengan. Izan ere, mendikate hori bide-gurutze dugu eta katalunieraren beste moldeekin desberdintzen duen ezaugarri propioak ditu. Hala nola, arabiar jatorriko toponimorik ez du ageri, eta erro prelatino eta indo-europearra, aldiz, nabarmena da. Toponimia erromanikoari dagokionez, berriz, katalunieraren aurreko molde garatuak antzematen dira. Bertako hizkeraren ikerketak interes berezia dauka, Kataluniako eta Pirinioetako toponimien azterketan aurrera egiten lagungarri izan daitekeelako.

- Xavier Ravier: Réflexions sur la situation linguistique de l'Aquitaine à l'époque prélatine et aux débuts de la romanisation: acquis et perspectives nouvelles

Akitaniar idazkien azterketa aurkeztu du, besteak beste idazki hauetan diren antroponimoak eta toponimoak zein hizkuntzetakoak diren; ikusmolde ibero-euskaldunetik ikusmolde akitaniar-euskaldunera noiz eta nola pasatu den euskara; Akitaniako hizkuntza eta Hispaniakoen arteko harremanak, bereziki iberiera; eta baita ditugun metodologiak eta orientabideak ere.

- *In Memoriam* Henrike Knörr

Euskaltzaindiaren XVI. Nazioarteko Biltzarrean, Henrike Knörr zena omendua izan da. Omenaldi honetara Txari Santiago, Henrike Knörren emaztea eta seme-alabak etorri dira; Txari Santiagok Euskaltzainburuak eskaini dion loresorta hartu du, hunkiturik hartu ere.

Andres Urrutiak aurkezpen hitzak esan dituelarik —“Hemen egin dugun Biltzarra ikusita, Henrikek esango zigun berak proposatu ziguna gauzatu dugula, bera izan baitzen Biltzarraren lehen sustatzailea”, Joan Martí Institut d'Estudis Catalans-eko Secció Filologicaren presidentea, Joseba Lakarra euskaltzain osoak eta Jose Luis Lizundia Euskaltzaindiko diruzainak hitz egin dute, eta bere lanaz egiteaz gain, sentimenduz mintzatu dira bere nortasunaz. Joan Martík “nik asko maite nuen Henrike Knörr” esan du; Joseba Lakarrak “ezagutu genuen guztiok dugun galera-sentimendua ezinestalia da, poetak familiako kutunaren aulki hutsaren aurrean senti zezakeenaren antzekoa. Berarekin inoiz kontra, inoiz alde, jardun dugunok erraz ahanzi genituen gure arteko gorabeherak, denik larrienak ere; zer ez genuke

emango hura gaur gure artean izan zedin! Kotsola gaitzen gogoratuaz bere lanen bitartez badela eta izanen dela” azpimarratu du, eta Jose Luis Lizundiak “Euskaltzaindiaren barruan, kargu “recordmana” izan dugu Knörr jaina” esan du.

Ekitaldian, Academia de la Lengua Galegaren ordezkaria izan da, eta Víctor de la Concha Real Academia Españolaren zuzendariak telegrama bat bidali du, Javier Pascual zuzendariordearen ezinetorria adieraziz eta Henrike Knörrri egin zaion omenaldiarekin bat eginez.

- Amaiera ekitaldia

Euskaltzaindia: Andres Urrutia Badiola

Institut d’Estudis Catalans: Joan Martí i Castell

Institut d’Estudes Occitanes: David Grosclaude

Academia de l’Aragones: Manuel Castán Espotz

Amaiera ekitaldian, Andres Urrutia euskaltzainburuak hartu du hitza eta hainbat ideia azpimarratu: batetik, Biltzar honetan izan diren hizkuntzak —euskara, katalana, okzitaniarra eta aragoiera— oraindik ere normalizazio eta normatibizazio bidean daudela esan du; bestetik, gizarte eleanitza dela gurea azpimarratu du eta, hirugarrenik, Akademien arteko elkarlanerako deia egin du.

Hitza, terminoa, eleaniztasuna dela esan du Andres Urrutiak. Bere esanetan, kontzeptu horren edukia ezin da alde batera utzi. “Orain —gaineratu du— Biltzarra bukatzeko dagoenean, berriro ere gogoratu behar dugu hasierakoa: gure hizkuntzen lehena eta oraina aztertu ditugu, etorkizuna egin behar dugulako gure artean. Horretarako dei zabala egin nahi du Euskaltzaindiak, bestelako Akademiak aldamenean dituela. Horretan ere ikusi nahi zaituzte, lankide eta bidaide”. Zentzu berean mintzatu dira beste hiru presidentetek. Institut d’Estudis Catalanseko Joan Martí i Castellen arabera, hizkuntza-aniztasuna aberastasunaren sinonimoa da. Badira hizkuntza boteretsuak eta botererik ez dutenak, baina guztiak dira normalak, batzuek ez dira besteak baino hobekak eta guztiek islatzen dute mundu bat. “Gure hizkuntzen aldeko apustua —esan du— ez da nostalgikoa, etorkizunari begira dago”.

Bukatzeko, David Grosclaude eta Manuel Castán ere bat etorri dira aurretik kideek esandakoarekin. Horien ostean, Carlos Pérez Nieves Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Sailburuak, bere poza agertu du Biltzarra Nafarroan egin izanagatik.

XVI. BILTZARRA  
IRUÑEAN

# Pirinioetako Hizkuntzak

Lehena eta oraina

*2008ko urriaren 6tik 10era*

Aragonés Occitan  
Euskara Catalá



[www.euskaltzaindia.net](http://www.euskaltzaindia.net)



Nafarroako  
Gobernua

Baluartea

Nafarroako Batzar Jauregia eta Auditoriuma

Baluartea plaza, 31002 Iruñea/Pamplona  
Telefona: 948 056 056  
[www.baluartea.com](http://www.baluartea.com)

90 1918-1919  
wote 2008-2009  
Euskaltzaindia

*Pirinioetako hizkuntzak: lehen eta orain*

*As lenguas d'os Pirineus: passau y presén*

*Las lengas deus Pireneus: passat e present*

*Les llengües dels Pirineus: passat i present*

**90**  
nites  
1918-1919  
2008-2009

**U** rriaren 6tik 10era, Euskaltzaindiak bere XVI. Biltzarrarengingoa du Iruñean. Gaia Pirinioetako hizkuntzen lehena eta oraina izango da, aste oso batean zehar aztertuko baitira Pirinioetako hizkuntza historikoen nondik norakoak. Hartara, euskara, aragoiera, katalan eta okzitanieraren hainbat alor ikertuko dira, hala nola, euren historia, dialektologia, literatura, soziolinguistika, teknologia berriak eta toponimia, aditu eta jakitun askoren ekarriak bilduz. Aldian-aldian egiten ditu Euskaltzaindiak bere Biltzarrak. Oraingoa hamaseigarrena delarik, aldi eta une erabakigarrian gertatzen da erakundearen ibilbidean. Batetik, 90 urte betetzera doa Euskaltzaindia eta, bestetik, azken urteetan Euskararen Akademiak bere aldaketak eta gaurkotzeak egin ditu, kide zein egitasmo berrietan.

**D** ende o 6 dica o 10 d'o benién mes d'octobre, Euskaltzaindia zelebrará a Pamplona o suyo XVI Congreso Internazional. O tema trigau ye o pasau y o presén d'as lenguas d'os Pirineus y en o transcurso d'o mesmo s'afondará en multiples aspectos d'as lenguas istoricas d'os dos costaus d'a cordelera pirenena. Asinas, numerosos expiertes analizarán as lenguas basca, aragonesa, catalana y ocitana, antímás de diferens besans d'a cultura que cadaguna d'ellas representa: a suya istoria, dialectolochía, literatura, soziolinguística, as nuebas tecnolochías y a toponimia. Iste XVI Congreso d'Euskaltzaindia se fa en un momento de bital importanzia ta la institucion, per dos motibos: la uno porque l'Academia ye amanada a fer 90 años y l'altro porque en os zagüers años ista ha contrimostrau una firme boluntat d'esbiellar-se y adecuar-se a os nuebos tiempos, tanto con a incorporación de nuebos miembros como de prochetos con prohección platera de futuro.

**D** eu 6 au 10 d'octubre qui vien, Euskaltzaindia que celebrará a Pamplona lo son XVIau Congrès Internacionau. Lo tèma deu Congrès que será lo passat e lo present de las lengas deus Pireneus, pendent lo quau seram en hicans dens mantuns aspèctes de las lengas istoricas deus dus costats de la serrada pirenena. Atau, ùns quants expèrts qu'analizarán las lengas basca, aragonesa, catalana e occitana, en mei de diferents aspèctes de la cultura representats per cada lenga : la soa istòria, dialectologia, lite ratura, sociolinguística, las navèras tecnologies e la toponimia. Aqueth XVIau Congrès d'Euskaltzaindia que's debana un moment d'importància màger per l'institucion, per duas rasons: pr'amor l'Academia qui'es suu punt de hestejar los sons 90 ans e pr'amor aquesta qu'a demostrat, pendent las darrères annadas, la soa volontat ferma de's renovar e de s'adaptar aus temps modèrnes, autant dab l'incorporacion de membres navèths que dab projèctes qui muishan un avièner clar.

**D** el 6 al 10 del propinient mes d'octubre, Euskaltzaindia celebrará a Pamplona el seu XVI Congrès Internacional. El tema triat és el passat i el present de les llengües dels Pirineus, i en el transcurs del Congrès s'aprofundiran múltiples aspectes de les llengües històriques de tots dos costats de la serralada pirenena. D'aquesta manera, nombrosos experts analitzaran les llengües basca, aragonesa, catalana i occitana, a més de diferents aspectes de la cultura que cadascuna d'aquestes llengües representa: la història, la dialectologia, la literatura, la sociolinguística, les noves tecnologies i la toponímia. Aquest XVI Congrès d'Euskaltzaindia ha estat organitzat en un moment d'una importància vital per a fa institució, per un doble motiu: perquè l'Acadèmia és a prop de complir noranta anys i perquè en aquests darrers anys ha demostrat una ferma voluntat de renovar-se i adequar-se als nous temps, tant amb la incorporació de nous membres com amb l'adopció de projectes amb una clara projecció de futur.



## URRIA - 6 Astelehena

■ 18,30 Hasierra ekitaldia

Aurkezpena

Agintarien agurrak

Michael METZELTIN:

*Las lenguas de los Pirineos*

■ 20,00

CORAL DE CÁMARA DE NAVARRAren emanaldia

(Zuzendaria: David Guindano)

## URRIA - 7 Asteartea

### Historia eta dialektologia

■ 09,00 - 09,50

Joseba Lakarra: *Aitzin euskara*

■ 09,50 - 10,00 Elkarrizketa

■ 10,00 - 10,50

Joakin Gorrotxategi: *Euskara Zabarra*

■ 10,50 - 11,00 Elkarrizketa

■ 11,00 - 11,15 Atsedaldia

■ 11,15 - 12,05

Joan Antonio Rabella:

*El nacimiento del catalán escrito en el Pirineo*

■ 12,05 - 12,15 Elkarrizketa

■ 12,15 - 13,05

Fernando González Ollé:

*El navarro y el aragonés*

■ 13,05 - 13,15 Elkarrizketa

■ 13,15 - 13,40

Ricardo Ciérvide:

*Occitano, languedociano y gascón en la Navarra Medieval,*

*País Vasco Norte y Guipúzcoa*

■ 13,40 - 13,45 Elkarrizketa

■ 13,45 - 14,10

Xavier Lamuela:

*El valle de Arán: el occitano al sur de la frontera pirenaica*

■ 14,10 - 14,15 Elkarrizketa

■ 16,00 - 16,50

Iñaki Camino:

*Pirinioak, ekialdea eta euskal mintzoak*

■ 16,50 - 17,00 Elkarrizketa

■ 17,00 - 17,25

Ramon Sistac:

*De isoglosas y fronteras. El catalán pirenaico*

■ 17,25 - 17,30 Elkarrizketa

■ 17,30 - 17,45 Atsedaldia

■ 17,45 - 18,10

Jordi Suñis: *Gaskoi - Okzitaniarra Dialektologia*

■ 18,10 - 18,15 Elkarrizketa

■ 18,15 - 18,40

Fernando Sánchez:

*Aproximación a la situación dialectal del aragonés*

■ 18,40 - 18,45 Elkarrizketa

■ 18,45 - 20,00 Relator: *Komunikazioak*

## URRIA - 8 Asteazkena

### Literaturak

■ 09,00 - 09,50

Patxi Oroz Arizkuren:

*Miscelánea filológica circumpirenaica*

■ 09,50 - 10,00 Elkarrizketa

■ 10,00 - 10,25

Philippe Gardy & Jean François Courouau:

*Références et croyances pyrénéennes dans l'oeuvre poétique occitane de D. Saurat*

■ 10,25 - 10,30 Elkarrizketa

■ 10,30 - 11,20

Chusé Inazio Navarro:

*Letras de cobre (un paseo por la historia de la literatura en aragonés)*

■ 11,20 - 11,30 Elkarrizketa

■ 11,30 - 11,45 Atsedaldia

■ 11,45 - 12,35

Aurelia Arkotxa:

*Ibilaldi poetiko bat Pirinioetan*

■ 12,35 - 12,45 Elkarrizketa

■ 12,45 - 13,10

August Rafanell:

*Catalán y occitano sobre el mapa*

■ 13,10 - 13,15 Elkarrizketa

■ 13,15 - 13,30 Atsedaldia

■ 13,30 - 14,15 Ekitaldi osagarriak

■ 16,30 - 16,55

Aingeru Epaltza:

*Hartzaren bortz batzak*

■ 16,55 - 17,00 Elkarrizketa

■ 17,00 - 17,25

Quino Villa:

*Viaje al Paraíso sin Nombre*

■ 17,25 - 17,30 Elkarrizketa

■ 17,30 - 17,55

Jean Yves Casanova:

*Elaboration et permanences du désir amoureux du Trobar au Baroque*

■ 17,55 - 18,00 Elkarrizketa

■ 18,00 - 18,30 Atsedaldia

■ 18,30 Emanaldi artistikoa

B. Atxaga: Euskal poemen irakurketa

*AVINENS (Muriel Barbie Castell): Okzitaniako Erdi Aroko gortesau poesia kantatua*

## URRIA - 9 Osteguna

### Hizkuntzak eta gizarteak

- **09,00 - 09,50**  
Mikel Zabide:  
*Hizkuntza-aldaeren lekua eta eragina EAEko eskola-munduan*
- **09,50 - 10,00** Elkarrizketa
- **10,00 - 10,50**  
Marie-Jeanne Verny:  
*Ensenbar l'occitan al siècle XXI, una escomesa e mai d'enjòcs / Enseigner l'occitan au XXIème siècle*
- **10,50 - 11,00** Elkarrizketa
- **11,00 - 11,25**  
Jean Salles-Loustau:  
*L'enseignement des langues des Pyrénées en France: quelles perspectives pour le basque, le catalan et l'occitan?*
- **11,25 - 11,30** Elkarrizketa
- **11,30 - 11,45** Atsedena
- **11,45 - 12,10**  
Juan José Segura:  
*Principios y criterios para una codificación del Aragonés*
- **12,10 - 12,15** Elkarrizketa
- **12,15 - 12,40**  
Patrick Sauzet: *Okzitanieraren arautzea?*
- **12,40 - 12,45** Elkarrizketa
- **12,45 - 13,10**  
Juan Carlos Moreno Cabrera:  
*Euskara eta bizkuntza nazionalismo espainiarra*
- **13,10 - 13,15** Elkarrizketa
- **13,15 - 13,40**  
Adolfo Arejita:  
*Abozkatasun corpusen ekarria literatura-eredura (zenbait adibide)*
- **13,40 - 13,45** Elkarrizketa
- **13,45 - 14,10**  
Miquel Àngel Pradilla: *Luces y sombras en los procesos de normalización lingüística de la lengua catalana*
- **14,10 - 14,15** Elkarrizketa
- **16,00 - 16,50**  
Joseba Intxausti: *Euskararen Historia Soziala*
- **16,50 - 17,00** Elkarrizketa
- **17,00 - 17,25**  
Elena Chiochetti (Eurac-Bolzano):  
*Harmonising legal terminology in four languages: the experience of the Alpine Convention*
- **17,25 - 17,30** Elkarrizketa
- **17,30 - 17,45** Atsedena
- **17,45 - 19,15** **Mahai ingurua: Teknologia berriak**  
Moderatzailea: Andoni Sagarna  
Katalana: Joaquim Rafel  
Aragoiera: Francho Rodés
- **19,15 - 19,30** Atsedena
- **19,30** **Emanaldi artistikoa**  
Guy Latty & Beñat Achiary:  
*Manciet poetaren "LO BREC La Blanche Nef (Untzi Zuria)*  
Grupo Val d'Echo  
Orquestina del Fabirol

## URRIA - 10 Ostirala

### Toponimia

- **09,00 - 09,50**  
Patsi Salaberri Zaratiegi:  
*Pirinioetako euskar leku izenak: direnak eta diratekeenak*
- **09,50 - 10,00** Elkarrizketa
- **10,00 - 10,25**  
Chabier Lozano:  
*La antroponimia aragonesa: su reflejo en la toponimia*
- **10,25 - 10,30** Elkarrizketa
- **10,30 - 10,55**  
Albert Turull:  
*Una caracterización de la toponimia pirenaica catalana*
- **10,55 - 11,00** Elkarrizketa
- **11,00 - 11,15** Atsedena
- **11,15 - 12,05**  
Xavier Ravier:  
*Réflexions sur la situation linguistique de l'Aquitaine a l'époque prélatine et aux débuts de la romanisation: acquis et perspectives nouvelles*
- **12,05 - 12,15** Elkarrizketa
- **12,15 - 12,40** **IN MEMORIAM HENRIKE KNÖRR**
- **12,40 - 12,45** Elkarrizketa
- **12,45 - 12,50** Atsedena
- **12,50 - 14,00** **Amaiera ekitaldia**  
Euskaltzaindia: Andres Urrutia Badiola  
Institut d'Estudis Catalans: Joan Martí i Castell  
Institut d'Estudes Occitanes: David Grosclaude  
Academia de l'Aragones: Manuel Castán Espot

### Ondorioak - Adierazpenak



**Bisitariaren gida**  
***Guía del visitante***



Euskaltzaindia  
Real academia de la lengua vasca  
Académie de la langue basque



**Nafarroako  
Gobernua**